

Lehenik eta behin, kalera irtengo gara jendeari galderak egitera, beraien iritziak kontuan hartzeko. Galdetegi bat pasako genioke pertsona bakoitzari horrela beraien proposamenak ere kontuan hartuko genituzke, eta gure proiektua hobetu.

Horrez gain, aurrekoetan esan bezala, onlineko iragarki bat jarriko genuke. Honekin bezero gehiagoetara iristea lortuko dugu. Horren harira, onlineko web orri bat jarriko dugu gure proiektuari buruzko informazio guztiarekin, jendeak interesa edukiko balu, web orrian bere dudak jarri eta geuk erantzungo genituzke.

Azkenik, astean behin kalean zein lokalean, bilerak egingo genituzke jendeari informatzeko eta beraien buruhaustek guri kontsultatzeko. Bilera hauetan bezeroei zer aldatu, gehitu edo kendu beharreko ideiak botatzea eskatuko genieke, horrela beraiekin parte hartuko dute eta beraien gustura jarriko genuke proiektua.